

## GURUTZEKO PAULO SANTUA

1

Aixkide bihotzekoa  
badot zutzat sekretoa:  
orain hirureun urte dirala  
gertatutakoa:  
San Paulo Gurutzekoa  
semez Italiakoa,  
Pasiotarren Anaiartea  
eraikitakoa.

2

Kristau famili jatorra  
fruetan emokorra,  
hamasei seme-alaba sortu  
zituen enborra.  
Bizimodua gogorra  
baina ondorenak, horra:  
zintzoarentzat guruzbidea  
ez dala zigorra.

3

Jaioterria Ovada,  
zetan harrotu badauka:  
on egiteko haundiki baino  
santu bat hoba da.  
Amak betiko aldaba:  
“Seme, ikasi ahal bada,  
baina lehenengo on-ona izan;  
nahi bada, hau ahal da.

4

Hemen paulo Gurutzeko,  
akulu loa kentzeko,  
Jesus kurutzan ikusi eta  
izan nahi anzteko.  
Gurutz ondoan baleko  
Jesus hau zelan maiteko;  
Jesusen Paulo, Pauloren Jesus  
alkarren pareko

5

Ama zan jainkozalia  
gurutzaren maitalia;  
santu-eskola onena sarri  
ohi da familia.  
Neke, barau, bijilia,  
gorde-galduz ibilia...  
Gurutz-ondoan dator bakarrik  
holako alia!

6

Gure Eleizan oinarri  
hoberik ezin da jarri,  
Jesus gurutzan beso zabalik  
danon salbagarri.  
Jo gurutzondora sarri,  
ta baietz laster igarri:  
gure Eleiza bihurtu baietz  
garbi eta barri.

A. Martzel

